



**ARARTEKOAREN AGERRALDIA**  
**EUSKO LEGEBILTZARRAREN OSOKO BILKURAN:**  
**2004. URTEKO TXOSTENA**

**Vitoria-Gasteiz, 2005eko azaroaren 11**



## I. SARRERA

Legebiltzarreko burua, Legebiltzarreko jaun-andreok, Lehendakari jauna, Gobernuako kideak, agur t'erdi.

Atsegin handiz etorri naiz gaur Legebiltzarraren osoko bilkura honetara Arartekoaren erakundearen 2004. urteko txosten arruntaren berri emateko. Legebiltzarreko izapide honetan, gainera, berorren ordezkaria naizen heinean zeregin atsegin bat bete behar dut: Arartekoaren erakundeak 2004. urtean zehar egin dituen jardueren gaineko kontuak ematea ganbera honi.

Bilkura hau oso berezia da niretzat, 2004. urteko ekainaren 18an hautatu nindutenetik osoko bilkura honetan egiten dudan lehenengo agerraldia baita.

Esan bezala, bada, txostenak erakundeak 2004an zehar egin dituen jarduerak islatzen ditu, baina jarduera horietan aurreko jarduneko Arartekoak, Mertxe Agúndez andreak, urteko lehenengo hilabeteetan egindakoak eta nik neuk Arartekoaren lanpostuaz jabetu naizenetik egindakoak batzen dira. Horrenbestez zilegi da Mertxe Agúndez andreari eskerrak ematea, jarduneko Arartekoa izanda eta horrek berez dituen zailtasunak kontuan hartuta, lau urte baino gehiagotan izan duen arduragatik eta egin duen lanagatik; eta zehazki, txosten honen 2004. urteko lehenengo hilabeteetan egin duen ekarpen garrantzitsuagatik eman behar dizkiogu eskerrak.

Halaber, aurretik nire kargu honetan egon zirenek egindako lana eta oinordetzan osasun bikaina duen erakundea utzi izana eskertu nahi diet: Juan San Martín jaunari, duela gutxi hil bada ere laster lehenengo Arartekoa izateagatik omenduko dugunari, eta Xabier Markiegi jaunari.

Azkenik, Arartekoaren erakundearen lan egiten duten 42 pertsoneri ere eskerrak eman nahi dizkiet, txosten honen bidez aurkezten dizuegun lana burutzeagatik. Txosten hau erakundearen egonkortasunaren adierazgarria da, gorabehera handirik gabeko trantsizioaren adierazgarria; eta bertan modu xehekatuan jasotzen da Arartekoaren erakundea eratzeari buruzko Legeko 32. artikuluko agindua.

Ohi ez bezala txostena urte amaieran aurkezten dugu eta, ondorioz, gai batzuk denboran urrun gelditzen zaizkigu; hori horrela gertatu da orain dela gutxi egin diren hauteskunde autonomikoen eta Legebiltzarra eratzeke izapideen ondorioz. Azalpen honen testuingurua joan den urteko txostena denez gero, azalpenak, nahitaez, 2004ko abenduaren 31n gure erakundeak egin zuen diagnostikoaren argazkia eman behar digu. Horrenbestez, izan diren inguruabar horiek ulertzea espero dut.



Txosten hau berau Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari aurkeztu berri diot, azterketa kuantitatiboa eginez; erakundearen jarduerak azaldu dizkiot batzordeari, azken urteotan erakundeak egin dituen ohiz kanpoko txostenen jarraipena oinarritzat hartuta; halaber, administrazioko erakunde batzuek erakundeari informazioa epean emateko oztopoak jartzen dituztela ere azaldu diot. Amaitzeko, azterketa kualitatiboagoa proposatu diot, txosten honetan adierazten diren gomendio orokorrak azaletik azalduz.

Plenoaren aurreko mintzaldi honetan -lehengoaren osagarria da hau-, Euskal Autonomia Erkidegoan eskubideak zein egoeratan dauden baloratu behar dut. Oraingo honetan, azalpen-bidetzat zera aukeratu dut: gure analisiaren arabera, oraingo gorabehera batengatik edo etorkizunean gerta daitekeenagatik beren eskubideak erabat eta modu eraginkorrean gauzatu ezin dituzten gizarte-talde edo sektoreen eskubideen egoera. Lehentasunezko arreta behar duten taldeak deitzen diegu, izan ere, gure ustez, euskal herritarrek beren eskubideak berdintasunez eta behar bezalako duintasunez erabili ahal izan ditzaten, ezinbestekoa da eskubide horiek gauzatzea eragozten duten zertzeladak desagerraraztea, edo, beste zenbaitetan, osagarri gisa, ekintza positiboko neurriak sustatzea. Ararteko erakundearen ziur gaude Euskadiko emakumeen eta gizonen eskubideak zaindu ahal izateko, batik bat talde horiekin eta talde horien alde egin behar dugula lan.

Halere, Konstituzioan aitortzen diren eskubideetan oinarritutako balorazioa ere aurkituko duzue txostenean, agerraldi honetan eginiko irakurketaren osagarri.

## **II. 2004. URTEKO TXOSTENAREN AZTERKETA, TALDE JAKIN BATZUEN ARAZOEI ARRETA BEREZIA EMAN ZAIELA AINTZAT HARTUTA**

Azken urteotan, Arartekoaren erakundeak arreta berezia eman dio babes gehien behar duten taldeen eskubideak defendatzeari, hau da, emakumeen, adinekoen, adingabeen, atzerritarren eta ezgaituen eskubideak defendatzeari.

Gizarte demokratikoetan berdintasuna ezin da kontzeptu formal hutsa izan; aitzitik, botere publikoek benetako berdintasuna lortzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte, bizitza publikoan eta esparru pribatuan egiazko berdintasun eta berdintasun eraginkor hori oztopatuko duten traba guztiak ezabatuz.

Erakunde honek berdintasuna lortzeko borrokari eman dio lehentasuna. Hain zuzen ere, arestian aipatu taldeek bizi dituzten egoerei aurrea hartzeko ildo berezi



batzuk ezarri ditu, talde hauek bereizkeria-egoera bereziak bizi ditzaketelako, euren eskubideak erabiltzerakoan zaurkorragoak direlako edo, nabarmen, egoera ahula bizi dutelako.

Aipatu jarduteko ildoetan sakontzeko eta horiek bultzatzeko asmoa daukat; era berean, Arartekoaren erakundeak duela zenbait urte jarduteko aintzat hartu dituen taldeez gain beste batzuetan ere esku hartzeko esparru berriak irekiko ditut, baina talde berri hauetan esku hartzeko ildo iraunkorrak ezarrita. Ildo horretan, 2006. urtean egituraketa berria abiaraziko dut, lehentasunezko arreta behar duten taldeak (LAT) izendatuko ditudanekin lehentasunez eta etengabe jardun ahal izateko; gainera, lehentasunezko arreta behar duten talde horietan ohiko taldeez gain beste batzuk ere sartuko ditut. Zehatzago esanda, orain arte hurrengo taldeei eman zaie arreta:

- emakumeak
- adinekoak
- adingabeak
- ezgaituak
- etorkinak eta gutxiengo etnikoak

baina hurrengo taldeei ere lehentasunezko arreta emateko asmoa daukat:

- terrorismoaren eta jazarpen-indarkeriaren biktimak
- gaixotasun kronikoa -fisikoa nahiz mentala- duten pertsonak
- homosexualak edo transexualak
- presoak eta atxilotuak
- txiroak edo prekariotasuna bizi duten pertsonak

#### 1. Lehenbizi, **emakumeen arazoei** emandako arreta berezia aipatu nahi dut.

Badira urte batzuk Arartekoaren erakundeak “genero ikuspegia” izenekoa ezarri zuela erakundearen funtzionamenduan, betiere ikuspegi horrek “generoaren faktoreak” azaltzen ziren gaietan zer-nolako eragina zuen kontuan hartu ahal izateko.

Egiaztatuta dago batzuetan egoerak larriagotu egiten direla emakumeen kasuan: laneko prekariotasuna, ezgaitasuna, preso edo atxilotuta egotea edo txirotasuna. Ondorioz, kasu askotan emakumea izateagatik bereizkeria bikoitza ematen dela esan dezakegu.

\* \* \* \* \*

Esperantza handiz hartu dugu Legebiltzarrak 2005eko otsailaren 18an gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako legea onetsi izana; izan ere, lege horrek esparru



publikoan eta pribatuan berdintasuna bultzatu eta emakumeek jasaten dituzten bereizkeriak desagerrarazi nahi ditu.

Zoritxarrez, berriz aipatu behar dugu ezberdintasunaren agerpenik dramatikoena emakumeen kontrako indarkeria dela. 2004. urtean, aurrekoetan bezala, erasoen kopuruak gehitzeko joera izugarria izan du. Indarkeria hori emakumeek jasaten dituzten bereizkeria eta bidegabekeria guztien artean larriena da, bizitzeko eta osotasun fisikorako eskubideak urratzen baititu.

Gure gizartean kultura-aldaketa sakona egin beharko da horrelakoak behin betiko ezabatu nahi baditugu. Gizartearen pentsamoldea aldatzeko prozesua geldoa da oraindik, baina era berean geldiezina, eta erakunde eta legeetan eragina du.

Lege-esparruari dagokionez, 2004. urteko abenduan genero indarkeriaren aurkako babes neurri osoei buruzko lege organikoa aho batez onetsi dela aipatu behar dut. Lege berri honek indarkeria sexistaren egitura-izaera hartzen du abiapuntutzat eta indarkeria eragiten duten kausen aurka egiten saiatzen da; horretarako, bada, egoerei aurrea hartzeko jarduera ugari diseinatu ditu. Horrezaz gain, legeak tratatu txarrak jasan dituzten emakumeei ematen zaien arreta areagotzen du mota ezberdinetako irtenbideak ezarriz, baina ez soilik zigorren esparruan orain arte egin den bezala.

Gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako gure lege horrek ezartzen du indarkeria sexistaren aurka borrokatzeko pertsonen benetako berdintasuna bultzatu behar dela. Ondorioz, genero indarkeriaren kausen aurka egiteko modurik eraginkorrena pertsona guztien erabateko berdintasuna lortzean aurrera egitea dela uste dugu. Ezinbestekoa da bi ikuspegi integratzea: bata indarkeriaren aurkako borroka eta bestea generoaren ziozko bereizkeria guztiak ezabatzea.

Azken finean, erakundeek lehenbailehen hasi behar dute emakumeen aurkako indarkeria benetan den egitura, kultur, segurtasun eta osasun publikoko arazo larria bezala hartzen eta arazo horren aurka egiten; hau da, botere publikoek esparru horretan orain arte izan duten plangintzarik eza eta ikuspegi integralik eza gainditu behar dute.

\* \* \* \* \*

2004ko urtarrilaren 29an, EAEko emakumeen aurkako indarkeriari erakundeak eman dion erantzunari buruzko txostena aurkeztu zen. Txosten horretan, hain zuzen, aztertu egiten da erakundeek zein arreta eman dieten tratatu txarrak jasatean aholkuak



edo laguntza eskatu duten emakumeei, eta halaber hobetu beharrekoak diren alderdi batzuk zehazten dira, hala nola:

- 1) Planifikatutako erantzunik ez egotea, eta arazoaren beharrezanezi eta larritasunari egokitzen zaien erabateko arretarik ez egotea.
- 2) Benetako egoera zein den ezagutzeko aukera ematen duten datuak urriak izatea.
- 3) Toki batetik bestera arreta ematean ezberdintasun nabarmenak egotea.
- 4) Ahultasun egoera berezia bizi duten emakume-taldeak egotea, eta hala ere emakume horiek zerbitzu jakin batzuetara heldu ezin izatea.
- 5) Ostatu hartzeko erabiltzen diren baliabide asko egokiak ez izatea edo urriak izatea.
- 6) Egitarauak eskuratzeko mugak egotea.
- 7) Itxaron-zerrendak egotea.
- 8) Udal esparruan, koordinatzeko mekanismoak eskasak izatea edo modu koordinatuan jarduteko protokolorik ez egotea.
- 9) Aipatu arazoak dituzten emakumeek egindako balorazioak eta proposamenak aintzat hartuta, oraindik bete ez diren beharrezan egotea.
- 10) Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen segurtasuna bermatzeko diren neurriak urriak izatea.

Jakin badakigu -eta aipatu izan dugu gainera- sexuaren ziozko bereizkeriarik ugaritsuenetan eta larrienen Administrazioak ez duela zuzeneko esku-hartzerik izaten eta, ondorioz, erakunde honen jarduteko esparrutik kanpo gelditzen direla. Enplegua lortzeko aukera ezberdinen eta laneko harremanen artean izaten diren ezberdintasunen kasuan gertatzen da hori: etxeko lanak eta besteren beharra duten pertsonen zaintza modu desorekatuan -eta bidegabean- daude banatuta; gizarte, kultur, kirol eta abarretako jardueretan partaidetza ezberdinak ematen dira, eta botere ekonomiko, enpresarial edo politikoko lanpostuak lortzeko aukerak ere ezberdinak dira.

Alabaina, egia da, benetako berdintasuna bultzatzeari buruzko manu konstituzionala betetz, botere publikoek bereizkeria mota horien aurka egiteko betebeharra dutela. Arartekoari dagokio manu hori betetzen duten zaintzea, dagokion salaketa eginez zerbait egitearen edo ez egitearen ondorioz administrazioek esparru pribatuan dauden ezberdintasun-egoerak onartzen dituztenean, horiei ez ikusiarena egiten dietenean eta nolabait indartzen dituztenean.

\* \* \* \* \*



Esparru publikoan eta pribatuan, emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasun nabarmenena familiako eta etxeko bizitzaren antolaketan ikusten da.

Eusko Jaurlaritzak familientzako neurriak aplikatzea onetsi zuen, seme-alabak dituzten familientzako laguntzak araupetu dituen uztailaren 16ko 176/2002 Dekretuaren bidez eta famili bizitza eta lana bateratzen laguntzeko neurriak ezarri dituen data bereko 177/2002 Dekretuaren bidez; baina neurri horien gainean keak izan dira.

Umea jaiotzen denetik edo adoptatzen denetik zenbatzen hasten den hiru hilabeteko epea dago laguntza-eskaerak aurkezteko, eta epe labur horrek familia asko laguntzarik gabe gelditzea eragin du, eskaera gehienak epez kanpo aurkezten baitira.

Horrelakoak ez gertatzeko, aipatu dekretuaren edukia zabalduko duen kanpaina berezi bat abiarazteko gomendatu diogu Eusko Jaurlaritzari.

Famili bizitza eta lana bateratzeko neurriei dagokionez, bestalde, besteren kontura lan egin beharrean euren kontura lan egiten dutelako laguntza horiek eskuratu ezin dituzten pertsonen keak jaso ditugu.

\* \* \* \* \*

Benetako berdintasunerako bidean oraindik zeregin handia dago inondik ere: hortxe ditugu Irungo eta Hondarribiko alardeetan parte hartu nahi duten emakumeek topatzen dituzten arazoak. Honako hau arazo anakronikoa da, urtero-urtero azaleratzen dena. Irungo eta Hondarribiko gizarteek konponbidea eman behar diote behingoz, berdintasun irizpideetan oinarrituta.

## 2. Bigarrenik, **adinekoen arazoez** arituko naiz.

Botere publikoek erantzuna eman behar diete adinekoen beharrian guztiei, hala beharrian ekonomikoei nola osasun eta gizarte arlokoiei.

Osasun sistemak eta gizarte zerbitzuek ahaleginak egin behar dituzte nagusien beharrianezi modu integralean ekiteko.

Lehengo astean Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaren Batzordeari txostena aurkeztu diot, adinekoei EAEn ematen zaien arretaren inguruan: etxez etxeko laguntza zerbitzuak, eguneko zentroak eta egoitza-zentroak. Txosten hori 2004ko abenduan bukatu zen.



Uste dut azpimarratu egin behar direla txosten horretan garbi ageri diren zazpi joerak, eta halaxe egin nuen batzordean:

- 1) EAEko biztanleriaren zahartze tasak gehikuntza handia izan du.  
1991. urtean 65 urtetik gorako biztanleak %12,4 ziren, 2001. urtean jada %17 ziren, eta 2010. urterako ustez %20,5 izango dira; gainera, orain baino askoz gehiago izango dira 75 urtetik gorako biztanleak eta adin-talde horretako pertsona ezinduak.
- 2) Adinekoentzako gizarte baliabideen gehikuntza garrantzizkoa izan da, baina oraindik ez da nahikoa, portzentajeak ikusita.

Azken urteotan adinekoen beharrietara hurbiltzeko egin den ahalegin ukalezina gorabehera, egia da abiapuntuko egoera guztiz kaxkarra zela; beraz, baliabideak ez dira nahikoak:

- EAEko 1994ko Plan Gerontologikoan aurreikusitako maila baino beherago daude oraindik ere.
- Europan gure inguruko herrialdeek dituzten benetako estalduretatik urrun daude.

- 3) Baliabideak dibertsifikatu egin dira.  
Lehenago egoitza zen aukera ia bakarra, hastapenetan zeuden beste aukera batzuekin batera -etxez etxeko laguntza, eguneko zentroak-, baina azken hamarkadan sendotu egin dira egoitzaz besteko aukera horiek eta baliabide berriak jarri dira abian, hala nola zaintzapeko pisuak edo etxebizitza komunitarioak.
- 4) Titulartasun pribatuko zerbitzuek leku garrantzitsua hartu dute.  
Adinekoei laguntzeko zerbitzuen eskaintzaren gehikuntza, neurri handian, eskaintza pribatuaren hazkunderari zor zaio. EAEko egoitzen bi herenak titulartasun pribatukoak dira.
- 5) Hiru lurralde historikoen artean desoreka nabarmena dago.  
Laguntza-eskaintza ez da inondik ere neurri berean garatu eremu geografiko guztietan: Arabako estaldura onargarria da, eta Plan Gerontologikoan dauden aurreikuspenak betetzen ditu, baina badira eskualde batzuk, batez ere Bizkaian, zalantzarik gabe estaldura txikiegia dutenak.





- 6) Laguntza emateko hiru eredu desberdin daude, eredu bat aldundi bakoitzeko. Ez daude ebaluaturik, ezta erkaturik ere, eta ardurak hartzeko modu eta gradu desberdinak ezartzen dituzte:
- Arabako ereduan sare publikoa oso ahaltsua da eta banakako laguntzak nahiko hedaturik daude.
  - Bizkaiko ereduan titulartasun publikoko baliabideen eskaintza txikia da eta banakako laguntzak, aldiz, nahiko hedaturik daude.
  - Gipuzkoako ereduan Aldundiaren beraren plazek eta itunpeko plazek osatzen dute eskaintza publikoa.

Aitortu beharra dago botere publikoak azken urteotan ahalegin handia egiten ari direla adinekoen beharrezanean erantzun egokia ematen saiatzeko.

Erronka nagusia gaurko estaldura zabaltzean datza. Zabalkuntza horri ekiteko orduan aintzat hartu behar litzateke eskaintzaren aldetik lurraldeen artean dauden aldeak berdindu egin behar direla, betiere baliabide hauen izaera komunitarioa eta, ondorioz, hurbileko zerbitzuen izaera errespetatuz.

3. **Adingabeen arazoei** berariaz eman behar zaien arreta dela-eta, azpimarratu behar dut, lehenengo eta behin, adingabeen multzoaren barruan badirela arrisku berezia duten talde batzuk; adingabe horien eskubideak murrizteko arriskuaz ari naiz.

Arartekoaren erakundeak lehentasuneko arreta eman die egoera ahula edota beharizan bereziak dituzten haur eta nerabeen sektore horiei. Hala, bada, ondokoak azpimarratu behar dira:

- babesik gabeko haur eta nerabeak (arrisku eta babesgabetasun egoerak);
- bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
- adingabe lege-hausleak (neurri judizialen bat ezarri zaienak);
- sasoikako langileen seme-alabak (zenbait egoeratan eskolatu gabe geratzen dira);
- hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak;
- adingabe atxilotuak: adingabeak atxilotzeko baldintzak;
- buru-osasuneko arazoak dituzten haur eta nerabeak.

Batzordean orain dela gutxi urteko txosten hau aurkezteko egin dudana agerraldian jada alderdi horietako batzuk azaldu ditut; hala ere, osoko bilkura honetan ere horiek azpimarratzea komeni dela uste dut.



- **Familiaren babesik ez duten haur eta nerabeei** dagokienez, egoera konplexu bat azpimarratu beharra dago, gero eta hedatuagoa, eta babes zerbitzuetan gero eta eragin handiagoa duena: egunetik egunera gehiago dira babespean hartzen diren nerabeak, zenbaitetan familiek eurek hala eskatuta; sarritan nerabeok portaera arazo larriak dituzte, haien famili egoera, aurreko esperientziak, drogen gehiegizko kontsumoa edo buru-osasuneko arazoak tarteko; hori horrela, erakundeen erantzuna zailagoa da.

- **Bakarrik dauden adingabe atzerritarrei** dagokienez.

Bakarrik dauden adingabe atzerritarren kopuruak pixkanaka gora egin du gure erkidegoan. Dagoeneko asko dira, bereziki Bizkaiko Lurralde Historikoan, eta maiz gainditu egiten dituzte erakundeen aurreikuspenak eta erantzuteko ahalmena.

Dakizuenek, aurtengo irailaren 8an gure erakundeak gai honen gaineko txostena eman du, eta batzordean aurkeztuko da datorren asteazkenean, hilak 16. Hortaz, ez dut gehiago luzatuko adingabe hauen egoerari buruzko jarduna.

**Adingabe lege-hausleak** direla eta, kezkarria da babes-sistemekin duten lotura, hau da, gazteentzako justizia-sisteman oso handia dela foru aldundien menpeko babes-sistemetatik datozen adingabeen proportzioa, bereziki portaera edo neurri larrienen kasuetan.

Bi sistema horietan maizenik parte hartzen duten kolektiboak honakoak dira:

- bakarrik dauden adingabe atzerritarrak;
- familia barruko erasoen inguruko arazoak dituzten adingabeak;
- emantzipatzeko edo familiarengana itzultzeko benetako aukerarik ez duten 18 urtetik gorakoak;
- babes zentroetan bizi eta ingurune irekian neurriren bat bete behar duten adingabeak.

Foru administrazioak eta EAEkoa lanean ari dira bi sistemak koordinatze aldera, eta harreman horiek egonkortuko dituen koordinazio-protokoloa prestatzeko proiektua egin da.

Beste alde batetik, oso pozgarritzat jotzen dugu Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2004-2007 urteetarako plana onetsi izana neurriak betearazteko. Izan ere, agiri horrek jendaurrean aurkeztu du gure erkidegoan neurriak betearazteko ereduak, eta hurrengo lau urteetarako lan-ildoak eta aurrekontuak zehazten ditu.



Aurten jarraipena egin eta gero, esan dezakegu atzeman den arazorik kezagarriena neurriak erabaki eta aplikatzeko geldotasuna dela, batez ere sistema judizialaren geldotasuna kasuak ebazteko orduan.

\* \* \* \* \*

Buru-gaixoei EAEn ematen zaien laguntza komunitarioaren jarraipenaren esparruan, berariaz heldu zaio **haur eta nerabeen buru-osasunaren** gaiari. Atzeman diren eta buru-osasunaren arloko laguntza komunitarioari buruzko gure txostenean azpimarratu diren beharrezkoen batzuk (hala nola, deszentralizazioa; giza baliabide espezializatuen gehikuntza [haurrentzako psikiatrak edo psikologoak]; lurralde eta eskualdeetan tarteko egiturak sortu beharra; eta gizarte, hezkuntza eta osasun arloetako batzordeen indartzea) elkarteek aldarrikatzen dituzten premiak dira oraindik ere.

Erakunde honek oso positibotzat jo zuen Bizkaiko Lurralde Historikoan, Sondikako Ola auzoan, hezkuntza eta terapia eskaintzen dituen eguneko zentroa abian jarri izana. Hala eta guztiz ere, ez genekien sortutako plazak nahiko izango ote ziren beharrezkoak asetzeko; izan ere, beste arrazoi batzuen artean, bada adin-tarte bat -nerabeena- zentro horretan lekurik ez duena.

Erakunde hau horrelako baliabideak ugaritzearen alde agertu izan da, eta begi onez ikusten du oraindik gauzatu gabe dagoen beste proiektu bat, Gipuzkoan nerabeei terapia eta hezkuntza eskainiko dizkien eguneko zentro bat abian jartzekoa. Mota horretako baliabideak sor daitezten, ados jarri behar dira Osakidetza, Hezkuntza Saila eta lurralde historikoetako gizarte ekintza sailak.

Hezkuntza Sailak dagoeneko adierazi du, antzeko beste unitate batzuk sortzeko aukerari buruz, irizpide honi jarraituko diola: *“ez dira gehiegi sustatu behar berariazko ekipamenduak haur eta gazteentzako sare arruntetik kanpo, alegia, hezkuntza saretik eta buru-osasuneko saretik kanpo”*.

Aukeratzen den bidea aukeratuta ere, egia da erakundeek erantzun egokia eman behar dietela adingabe eta nerabe hauen beharrei.

\* \* \* \* \*

**Hezkuntza-behar bereziei EAEn ematen zaien erantzuna** dela eta, berriz esan behar dugu lehentasuna eman behar zaiola ikasle behartsuen hezkuntza



goiztiarrari 3 urte arteko adin-tartean. Ez dirudi, ordea, ikasle behartsuak lehentasunez eskolatzea lortzen ari denik; izan ere, errazago sortzen dira eskola-plazak horretarako ekimen pribatua edo udal ekimena dagoen lekuetan.

Etengabeko beste kezka bat izan dugu, alegia, hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen banaketa orekatua bermatzeko neurriak har daitezela eskatzea, “eskola ghetto”rik sortu ez dadin. Hezkuntza Sailak berezko izaera aitortzen die hiru kolektibori:

- ezgaitasunen baten ondorioz hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak;
- ikasle inmigranteak;
- ikasle ijitoak.

Hezkuntza zentro jakinetan pilatu ez zitezen, neurri batzuk hartzea proposatu zen, hala nola, ratioak ezartzea, matrikulatzeko arauak berrikustea eta deribazioen edo ezkutuko kaleratzeen jarraipena egitea.

Zenbait datu ikusirik (esate baterako, ikasle ijitoen %89 ikastetxe publikoetan daudela, eta, gainera, hezkuntza zentro gutxi batzuetan pilatuta), benetan sinetsi behar dugu eskola ghettoak sortzeko arriskua dagoela.

Ikasle atzerritarren kopuruaren etengabeko gehikuntza dela eta, arazo honi konponbide egokia eman beharko zaio, ikasle guztiei gizarteratzeko eta bertakotzeko aukera emango diena.

- Euren familiekin Arabako mahats eta patata bilketara etortzen diren **sasoikako langileen seme-alaben** arazoari dagokionez, erakunde honek arazo horren jarraipena egin du azken urte hauetan.

Azpimarragarria da Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak “Sasoikako Langileei Arreta emateko 2004-2007 urteetarako Plan Integrala” onetsi duela, plan horretan ezarritako ildoetan adingabe hauei laguntza ematea aurreikusten baita.

Arabako Lurralde Ordezkaritzak laguntza eman du ume hauek eskolatzeko, eta zenbait ikastetxetan gainerako ikasleekin elkartzeko saioak egin dira. Esperientzia horrek balorazio positiboa merezi du.

\* \* \* \* \*



2004. urtean Jokin C. mutikoaren suizidioak denok astindu gintuen. Gazte horren heriotza latzak agerian jarri zuen errealitate ikaragarria: ikastetxeetan tratu txarrak ematen dira, *bullying* izenekoa gertatzen da, hau da, kidekoen arteko jazarpen edo biktimizazioa.

Eskola jazarpenaren gai hori bere osoan hartuta, Arartekoaren esku-hartzea, azken hilabeteotan, bi ekimenetan gauzatu da:

Herritarren Partaidetzarako II. Foroak hain zuzen ere ikaskideen arteko tratu txarrak izan zituen aztergai, eta EAEko hiru hiriburuetan egin zen.

Gainera, 2005. urte honetan gai bakarreko txostena egiten hasi gara, ikastetxeetako bizikidetzari buruzkoa, Kataluniako Síndic de Greuges erakundearekin batera. Txosten horretan sakonean aztertuko dira Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako arazo hauek, eta gomendio baliagarriak emango dira ikastetxeetan tratu txarrak saihesteko eta bizikidetzeta hobetzeko.

- **Atzerritarren gaia** etengabeko kezka da erakunde honentzat.

Estatuko Administrazioaren zerbitzuen jardunari buruzko kexa asko jasotzen ditu Arartekoaren erakundeak. Kexen arrazoiak, gehienetan, prozedura batzuek tramitatzean gertatzen diren atzerapenak dira: egoitza-baimena berriztatzeke, bisatua emateko edo espainiar naziotasuna ezkontzaren bitartez eskuratzeko. Egonaldi irregularraren ondorioz etorkinak kanporatzeko espedienteak edo Estatuan sartzeko bisatuak ukatzea ere kexen artean egon ohi dira.

Udalerriren batek atzerritarrak erroldatu gura izan ez dituelako ere kexak izan dira. Hau oso gertaera larria da, gizarte zerbitzuak jaso ahal izateko erroldatzea oso garrantzitsua delako.

Atzerritarren eskubideei buruz, oro har, bi gomendio egin dira.

Lehenengo gomendioan, euskal administrazio publikoen mendeko poliziaei gomendatzen zaie jokabide-kodeak sor ditzatela inmigrazioari buruz ematen duten informazioa prestatzeko.

Izan ere, etorkinen alde diharduen elkarte batek bere kezka azaldu digu, delituen gaineko informazio ofizialean, kasu askotan, ustezko egileen naziotasuna adierazten delako atzerritarrak direnean. Horrek oso eragin txarra du gizarteak etorkinez duen irudian.



Horregatik, erakunde honek Ertzaintzari eta Euskal Autonomia Erkidegoko udaltzaingoei aholkatu die konturatu daitezela informazio-iturria direla eta, hortaz, etorkinei buruzko informazioa tratatzeko jokabide-kodeak sor ditzatela. Horrelako kodeak sortzeko erreferentzia ona da Etorkinak Gizarteratzeko Euskal Foroaren jarraibidea, 2000ko apirilaren 5ekoa.

Bigarren gomendia, berriz, etorkinen osasun eskaerei ematen zaien erantzunari buruzkoa da.

Atzerritarren osasunari egiten zaion arretak garrantzi nabarmena du pertsonengan, eta giza eskubideen funtsezko osagaia da.

Dokumentaziorik gabeko atzerritarrekin gertatzen da arazorik larriena. Izan ere, hau ez da osasun eskubideari buruzko arazo juridikoa, bestelakoa baino. Honelako atzerritarrak beldur dira agintariek harrapatuko ote dituzten, eta horregatik, ez dira osasun-zentroetara joaten.

Atzerritar guztiek, paperak eduki zein ez eduki, osasun sistemara jo dezaten formula berriak sortu eta aplikatu beharra dago.

Aurreikuspen programetan inbertitu behar dugu, eta osasun-langileak trebatu, etorkinen errealitate berriari aurre egiteko.

Atzerritarren zailtasun kulturalak (eta hizkuntzakoak ere) aintzat hartu behar ditugu. Hartara, administrazioak etorkinen osasun-eskubidea bermatzeko behar diren helburuak bete beharko ditu.

- Babes berezia behar duten kolektiboentzako jarduketa berezietara etorri, **ezgaitutako pertsonen arazoak** aipatu behar ditut.

Egia nabarmena da baina esan egin behar dut: ezgaitutako pertsonak gainerako herritarren eskubide berak dituzte. Askotan, ordea, euren eskubideak gauzatzeko arazoak izaten dituzte. Oztopo mordoa jartzen zaizkie bizimodu normala egiteko eta gainerako herritarrek dauzkaten aukerak izateko orduan.

Ezgaitutako pertsonen asmo nagusietako bat lanpostu arrunta lortzea da.



Ezgaitutako pertsonak Euskal Autonomia Erkidegoko lan merkatu arruntean sartzeko planaren onespena datu positiboa da. Dakizuenez, plana Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak aurkeztu zuen.

Arartekoaren erakundeak ezgaitutako pertsonak laneratzeari buruzko aparteko txostena amaitu zuen 2003an.

Txosten horretan azaltzen denez, ezgaitutako pertsonen aktibitate gabeko tasa askozaz ere handiagoa da biztanleria osoarena baino. Lan merkatuan sartzeko zailtasun hau areagotu egiten da emakume ezgaituen kasuan, ezintasun psikikoa duten pertsonen kasuan eta minusbalio maila handia dutenen kasuan. Horregatik, lan politika bereziak sortu behar dira laneratzeko eragozpen gehien dituzten kolektiboetara zuzendurik.

Erreserba kuotak areagotu behar dira, eta enpresek eta administrazio publikoek kuotak betetzen dituztela ziurtatu. Horretarako, ezinbestekoa da orain arte gutxi garatu diren lan-formulak arautzea eta sustatzea; esate baterako, lagundutako enplegua.

Nolanahi ere, bide luzea dugu aurretik ezgaitutako pertsonak lan merkatuan erabat integratzeko. Hartara, oso garrantzitsua da gizartearen sentsibilizazioa, eta sentsibilizazio horretan gure enpresa eta sindikatuetaraino iristea.

2004. urtean jarraipena egin diogu ezgaitutako pertsonak funtzio publikoan sartzeko duten egoerari. Analisi honetatik zenbait ondorio atera ditzakegu:

- Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoetan lan egiten duten pertsona ezgaituen kopuruari buruz ez dago datu zehatzik.
- Euskal administrazio publikoek minimoen planteamendua egiten dute erreserba-kupoa betetzerakoan. Hau da, onenean ere, legeak finkatzen duen minimoa bete baino ez dute egiten.
- Erreserba-kupoa ez da oso eraginkorra.
- Plazak banatzerakoan, sarritan kidego eta kategoria jakin batzuetan plazak erreserbatzea saihesten da.
- Erreserba-kupoa oso gutxi erabiltzen da aldi baterako lanean.

Euskal administrazioek, aipatutako plana kontuan izanik, ondoko neurri hauek hartu beharko lituzkete:

- Plazen erreserba-kupoa gehitu behar dute, %10eko kuotara iristeraino.



- Kontratu mota guztietan aplikatu behar dute, batez ere aldi baterako lanean. Hartara, erreserbaren berri eman behar da, beren beregi, ordezkapenen poltsak edo zerrendak kudeatzeko jarraibideetan.
- Banaketa modu orekatuan egin behar da, talde eta kategoria ezberdinen arabera, sustapen-neurri hau ezgaitasuna duten pertsona kopururik handienari aplikatu ahal izateko moduan.
- Ezgaitutako pertsonak lanpostu publikoetan sartzea errazten duten neurri positibo guzti-guztiak erabili behar dira, eta egin daitezkeen egokitzapenei eduki erreala eman, plazen erreserba hutsetik haratago.

Ezgaitutako pertsonak duten beste arazo bat irisgarritasuna da, zehazki, erabilera publikoko eraikinen irisgarritasuna. Erakunde honek aparteko txostena egin zuen gaiaz. Bertan argi ikusten da, besteak beste, legea nahitaez bete behar den arren, administrazio gutxik egin dutela irisgarritasunerako lau urteko programa. Programa hori, ordea, oinarrizko tresna da hirietan, espazio publikoetan, eraikinetan, garraioetan, zerbitzuetan eta komunikazio sistemetan irisgarritasuna bermatuko badugu.

Bestalde, pozgarria da Euskal Autonomia Erkidegoko erabilera publikoko eraikinen irisgarritasunari buruzko aparteko txostena argitaratu zenetik (2003ko irailean), galdetu zaien administrazio publiko guztiek neurriren bat hartu dutela irisgarritasuneko lau urteko programa egiteko.

Aitzitik, foru aldundien eta zerbitzuetako udal eraikinen irisgarritasuna eta autonomia-dependentzien irisgarritasuna asko hobetu behar dira oraindik ere. Egoera hau are kezkarriagoa da gizarte, osasun edo hezkuntza zerbitzuetan.

\* \* \* \* \*

Esan dudanez, aipatutako taldeez gain, badaude kontuan hartu beharreko beste batzuk, eta haietzako esku hartzeak bultzatuko ditut erakunde honetatik. Gaurko honetan talde horietako bi aipatu nahi nituzke: terrorismoaren biktimak, batetik, eta preso eta atxilotuak, bestetik.

Terrorismoaren biktimei dagokienez, haien egoera eta premia aztertu zuen ponentzian Arartekoaren erakundeak eginiko agerraldia erantsi da txostenean. Agerraldi hartan, azpimarratu zen terrorismoaren biktimei ordain material eta morala eman behar





zitzaiera. Ordain moralean asko dago egiteko, ez bakarrik erakundeen aldetik, baita euskal gizarte osoaren aldetik, batez ere.

Funtsezkoa da Legebiltzar honetan hartzen diren erabakiak gauzatzea, biktimek babestuta daudela senti dezaten. Intolerantzia, sufrimendu eta bazterketa urte luzeak izan baitira.

Gizartearen berreraikuntza moralerako, etorkizun baketsua bizitzeko, ezinbestekoa da bakearen, tolerantziaren eta pluraltasunaren kultura izatea. Horretarako, balioetako hezkuntzak gure hezkuntza sistemaren apustu garbia izan behar du, baina baita gizarte eta familia apustua ere.

\* \* \* \* \*

Preso eta atxilotuen eskubideen errespetuak ere biziki kezkatzen nau. Eta zehatzago, tratu txarren eta torturen salaketa batzuek kezkatu naute, poliziaren atxiloketetan ere gertatu baitira.

Erakunde honek tortura eta tratu txarren salaketen aurrean duen eginbeharra ezin daiteke izan kasu zehatzen ikerketa. Aitzitik, aurreneurriak hartu behar ditugu, eta poliziaren jarduna etengabe ikuskatu, jokabide ez zilegiak galarazten dituzten kontrol-mekanismoak ezartzeko eta, horrelako jokabiderik gertatuz gero, atzemateko eta zigortzeko.

Tortura giza eskubideen urraketarik larrienetakoa da. Horregatik, Arartekoaren erakundeak pertsona guztien integritate fisiko eta morala bermatzeko jarrera izan du beti, inpunitatea babesten duten denbora eta espazio guztiak desagerrarazten duten neurriak proposatuz.

Ildo horretan, Arartekoak abenduaren 21ean dokumentu bat aurkeztu zuen: Arartekoaren erakundearen adierazpena torturari buruz. Bertan, tortura desagerrarazteko eta prebenitzeko neurriak proposatzen dira. Agiria txostenaren eranskin gisa dago.

Aurreneurrietan aurrera egiteko dauden tresnen artean ondoko hauek nabarmendu behar ditugu:

- Inkomunikazioa desagerraraztea.
- Atxiloketak grabatzea.
- Atxilotutakoei osasun-azterketa egitea.
- Poliziakideak trebatzea eta jarraibide argiak ematea torturari buruz.



Zentzu honetan, iaz gai honetan izandako nobedadeetako bat hauxe izan zen: *Inkomunikazio erregimenean dauden atxilotuentzako laguntza koordinatzeko protokoloa eta Inkomunikazio erregimenean dauden atxilotuen familiei arreta egiteko zerbitzua.*

Erakunde honek ontzat eman zuen erakunde ezberdinen arteko koordinazio-saioa (Ertzaintza, Osakidetza eta Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea). Bestalde, beti uste izan dugu atxilotuen eskubideak bermatzeko ezinbestekoak direla osasun-azterketak.

Protokolo honetan, auzitegiko medikuaren osasun-azterketa beharrezkoa dela adierazten da, betiere “*atxilotutakoa poliziaren dependentzietan sartu aurretik*”.

Atxiloketaren bukaeran ere berdin jokatuko litzateke. Hau da, auzitegiko medikuak beharrezkotzat jotzen duenean, epaileari jakinaraziko dio beharrezkoa dela “*erreferentziako osasun-zentroetan asistentzia ematea*” atxilotuari, hala egin dadin.

Argi dago neurri hau eta protokoloko gainerako neurriak aplikatuz eskubideak hobeto bermatuko direla. Halere, bermeak handiagoak lirateke atxilotua ospitaleko zerbitzuetara eramanez gero, eta are handiagoak konfiantzazko medikuak arreta egingo balio. Bestalde, orain arte aztertutako kasuak kontuan izanik, esan behar dut aipatu ditugun bi uneetan polizia-etxeetatik kanpo egin beharreko osasun-azterketak oso gutxitan egiten direla. Ohikoena da, ordea, polizia-etxean bertan azterketak egitea, batez ere atxiloketaren amaieran. Kontuan izan behar da, era berean, profesionalen eskarmentuak eta iritziak erakusten dituztenek, osasun-azterketek mugak dauzkatala, eta haien bidez nekez argitu daitekeela kasu batzuetan polizia jokabide jakin batzuk izan diren ala ez (adibidez: lo egiten ez uztea, mehatxuak, irainak eta atxilotuei presio psikologikoa modu ezberdinetan egitea).

Bestalde, gogora ekarri behar dugu 1999an Arartekoaren erakundeak Herrizaingo Sailari gomendatu ziola, aurreneurri gisa, bideo-grabaketen bidezko kontrol-sistema bat ipintzeko. Kamerak ziegen eremuko pasilloetan jarriko lirateke, atxilotutakoen eskubideak bermatzeko.

Noizean behin Ertzaintzaren atxiloketa-zentroetara egiten ditugun bisitetan ikusi dugu sistema instalatu dela eta funtzionatzen ari dela. Atxiloketetan gorabehera batzuk edota salaketa judizial batzuk argitzeko balio izan du. Aitzitik, polizia-etxe batzuetan, komunikatu gabeko atxiloketak egin direnetan, ziega-eremu bi daude. Eremu bi hauek erabat bereiztuta daude euren artean, eta grabaketa-sistema haietako batean bakarrik jarri da. Eremu hori, gainera, gutxien erabiltzen dena da, Trafiko Unitateari dagokiona.



Jarduteko modu honek eraginkortasuna kentzen dio proposatutako sistemari, noski. Beraz, ondorioztatu behar dugu 81/1999 Gomendioa ez dela betetzen oraindik ere, atxiloketa-zentroetan kamera bidezko grabaketetan oinarritutako kontrol-sistemari buruzkoa.

Uste dugu gomendio hau zehatz aplikatuz gero torturaren prebentzioan eta desagerrarazpenean urrats garrantzitsua egingo genukeela. Sistema abian jarri eta aztertu ondoren, beste polizia-gorputz batzuek eginiko atxiloketetan aplika liteke.

Horregatik, poz handiz hartu ditugu Herrizaingo Sailak oraintsu egindako adierazpenak, kamera bidezko grabaketetan oinarritzen den kontrol-sistema ezartzearen aldekoak. Uste dugu tratu txarren edo torturaren kontrako aurreneurietan urrats erabakigarria izan daitekeela.

\* \* \* \* \*

Bukatzen hasiko naiz. Badakizue legebiltzar talde guztiekin harreman onak izaten ahalegintzen naizela eta, horregatik, nire agintaldiaren hasieran aurreko Legebiltzarra osatu zuten taldeekin harremanetan jarri nintzela, eta orain legegintzaldi honetan diharduten legebiltzar taldeekin bilerak egiten ari naizela. Ezagutzen dituzue, beraz, nire asmoak: herritarren eskubideak babesteko erakunde honi bultzada berri bat eman nahi diot, eraberritu egin nahi dut, eta lan egiteko eta kalitate handiko zerbitzua eskaintzeko beharrezkoak diren parametroetan kokatu. Hasieran esan dudana bezala, Euskal Autonomia Erkidegoko herritarren borondatearen ordezkari den erakunde honen aurrean agertzen naizen lehen aldia da, berorren goi ordezkari gisa. Eta mintzaldi hau amaitzeko, bidezkoa iruditzen zait labur-labur Arartekoaren zeregina zein ardatzetan oinarritu behar duan azpimarratzea, ardatzok osatu baitute gure erakundeak 2004. urtean burututako jardueren arabera eskubideen egoeraz egin dugun balorazioaren oinarri filosofikoa.

1. Indarkeria da herritarrek beren eskubideak eta askatasunak gauzatzearen kontra aurkitzen duten mehatxu nagusia, Euskadin nahiz edozein herrialdetan. Horregatik, eskubideen egoera ona zaintzen duen erakunde batek, lehen-lehenik, gure gizartetik, gure kulturatik, gure gogotik eta gure portaeratik indarkeria, edozein motatako indarkeria desagerrarazteko egin behar du lan. Lehendabizi, ETAk erabiltzen duen biolentzia terrorista izugarri eta gaitzesgarria. Eta, era berean, borroka egin behar dugu emakumeen kontrako indarkeria sexistaren aurka, arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka, baita homofobiaren aurka ere; edo ikasgeletako indarkeria desagerrarazi behar dugu, ikasle batzuek beste ikasle batzuen kontra edo irakasle edo gurasoen kontra erabiltzen dutena, eta hainbat



gazte-taldek erabiltzen duten bortizkeria. Orobat, ahaleginak egin behar ditugu honako hauek erazteko: gure haurrei, guraso adintsuei, ezinduei edo buruko gaixotasunen bat dutenei emandako tratu txarrak –fisiko edo psikologikoak–, sexu-abusuak –hori ere indarkeria baita–, e.a. Horretarako guztirako, lan nekaezina egin behar da, lagun hurkoa errespetatzeko eta gizakien oinarrizko eskubideak errespetatzeko balore demokratikoak babes eta susta daitezen, eta gizakiak balore horietan hezteko eta berrezteko, batik bat gure haur eta nerabeak. Adingabeen alorra izango da Ararteko honen lehentasunetako bat.

2. Demokrazia ez da sistema estatikoa eta, gizakion eskubideak babesteko orduan, herrialde demokratiko guztiak ez zaizkio eredu berari jarraitzen. Ombudsmanok kalitateko, goi mailako, abangoardiako demokraziaren alde egin behar dugu. Helburu hori lortu nahi bada, lanean jo eta ke aritu behar dugu erakunde eta administrazio publikoek zorrozki hitz eman dezaten legeria, eskubideak alor materialean nahiz prozesalean babesterakoan, ahalik eta bermatzaileena izango dela, eta beraien langileek hutsik gabe errespetatuko dituztela gizaki guztien eskubideak, batez ere herrialde orotan eskubideak bereziki hausgarriak gertatzen diren alorretan, hala nola, atxiloketa-zentroetan eta espetxeetan. Herri-aginteen erantzukizun-alorretan ez luke gizakiaren oinarrizko eskubideak urratzeko aukera txikienik egon behar, ezta urratu direlako zalantza izpirik ere. Horretarako, etengabe hobetu behar dira helburu hori lortzeko arauak eta babes-sistemak.
3. Gizarteko bazterkeria kasu bakoitza, begi-bistakoa denez, gure eskubide-sistemako eta, hortaz, demokraziako akats edo hutsune bat da. Etengabe lanean jardun behar dugu gizarte-kohesioaren alde, kanpokoak gero eta errazago bere baitan txertatzen dituen gizartearen alde, besteak edo nor bere burua baztertu gabe, ghettorik gabe, pobreziarik edo marjinaziorik gabe, inor bere ezein zertzeladagatik baztertu barik, bizitza eta lana duintzat jo ahal izango diren gizartearen alde, izan ere, testuinguru horretan bakarrik lortuko da gizaki guztiek –berriro diot, guztiek– beren eskubideak berdintasunez, erabat eta modu eraginkorrean gauza ditzaten.
4. Ondo administratzeko eskubidea oso errotuta dago ”ombudsman” aurreratuenen kulturaren eta praxian beren eginkizunak betetzerakoan. Herritarrek informazioa jasotzeko duten eskubidea, dagozkien gaitan egiaz parte hartzekoa, beren mesederako tresna eraginkorrak eskura izateko eskubidea, zerbitzu eta prestazio publiko eraginkorrak eta dauden premiei egoki erantzuten diotenak izateko eskubidea, horiek denak parametro baztertu ezinak dira guretzat



administrazioaren jarduerak baloratzeko orduan, lehen aipatu dugun goi mailako demokrazia lortzeko bidean aurrera egin nahi badugu behintzat.

Amaitzeko, berriro diotsuet, zuei entzuteko zeharo prest nago, egin ditzakegun akatsak onartu eta zuzentzeko gertu, eta zuetako bakoitzaren zerbitzura aritzeko prest. Legebiltzarraren ordezkari naizenez, laguntza eskatu nahi dizuet, erakunde honi legez eta estatutuz eman zaion zeregin eskubide-bermatzaile garrantzitsua behar bezala burutzeko, eta eskaini didazuen arreta eskertu nahi dizuet.

Eskerrik asko.